



2017ko abenduan, Artea Etnografi Elkarteak Artziniegako Udalarari 2018 urtean, arazo ekonomikoengatik, Artziniega Museoan egiten diren bisita kulturalak, didaktikoak eta gidatuak kolokan egongo liratekeela jakinarazi zitzaion aldi berean eta ahaztu gabe, Museoan bertan dagoen Informazio Turistikoko Puntua ere bai. Arazo ekonomiko horiek museoko gidak bere gain hartzen dituen Arabako Foru Aldundiak onartu zuen Lan-Hitzarmena betetzeagatik zirela.

Nahiz eta Artea Etnografi Elkarteak:

- Udalarekin bat banino gehiagotan bildu.
- Elkartea eta Udala lotzen duen hitzarmen berri bat adosteko proposamen batzuk bidali.
- Fundazio baterako proposamen bat landu.

Hasierako puntuan gaude nahiz eta urtebete igaro: Artziniega Museoaren irekiera bermatzeko finantzazio falta. Horregatik, 2018ko abenduaren 14ean, Elkarteak 2019ko urtarrilaren 2ko zabaleraren inguruko jarrera argi azaltzen zuen idazkia helarazi zion Udalarari.

Idazkian adierazten denez, Artea Etnografi Elkartea osatzen dugun boluntarioak ez gaude Artziniega Museoaren zabaleraren kostua gure ondarearekin hartzeko prest, horregatik **urtarrilaren 2an Museoak ez ditu bere ateak publikora zabalduko.**

Beraz, Museoari bisita eta prentsa-agerraldi batera deitzen zaitugu bihar osteguna, hilak 3, eguerdiko 12:00etan Artziniega Museoan (Arteko Aldapa, 12, Artziniega).

Asistentzia konfirma ezazu mesedez.

